

**Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 3/2024 FORU AGINDUA, urtarrilaren 11koa, zeinen bidez onartzen baitira zerga hauek kudeatzean aplikatu beharreko batez besteko salmenta-prezioak: Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia (BAO Otsailaren 5ekoa)**

Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 55. artikuluan ezartzen denaren arabera, balioak egiaztatzeko moduetako bat merkatuko batez besteko prezioak aintzat hartzea da. Ildo horretatik, Ogasun eta Finantzen saileko titulararena, ekitaldi bakoitzean, foru agindu batean biltzen ditu automobilen, autokarabanen, motozikleten, laketontzien eta uretako motoen merkatu-prezioak, eta aurten moto elektrikoek eta quaden merkatu-prezioak ere bilduko ditu.

Horrez gain, urtarrilaren 21eko 70/1992 Foru Aginduan lehenengoz ezarri zen erabilitako itsasontziak eskualdatzean batez besteko prezioak egiaztatzeko gisa erabiltzeko aukera. Haren arabera, prezio horiek finkatzeko erabilera-urteen araberako portzentajetaula aplikatu behar zen.

Azken eguneratzea Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abenduaren 23eko 954/2022 Foru Agindua baliatuta egin zen, zeinen bidez onartzen baita zein diren, 2023rako, eta aplikatu beharreko batez besteko salmenta-prezioak zerga hauek kudeatzean: Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren uztailaren 11ko 287/2023 Foru Agindua, zeinen bidez onartzen baitira Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia kudeatzean aplikatzeko batez besteko salmenta-prezioak, prezio horiek 2018ko abenduaren 23ko 954/2022 Foru Aginduaren bidez onartu ez ziren kasuetarako.

Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia dagokionez eta balioztatzea Europar Batasuneko irizpideetara egokitzearen, formula bat sartu da, azken urteetan bezala; bada, formula horrek merkatu-balioetik kenduko du, zerga horren ondorioetarako, erabilitako ibilgailu batek dagoeneko jasan duen zeharkako zergapetzea.

Ondorioz, foru agindu honen bidez batez besteko salmenta-prezio horiek berrikusi dira 2024rako, bai eta zerga horiek kudeatzeko aplikatu beharreko ehunekoak ere.

Hori guztia dela eta, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39. artikuluko i) idatz-zatian emandako gaikuntza erabilita, honako hau

XEDATZEN DUT:

**1. artikulua. Aplikatuko diren batez besteko prezioen taulak.**

Abenduaren 23ko 954/2022 Foru Aginduko I, II, III eta IV. eranskinetako taulen orde, Foru Agindu honetako I, II, III eta IV. eranskinetakoak aplikatuko dira, ondorio guztietarako.

## 2. artikulua. Batez besteko salmenta-prezioen aplikazio-eremua.

Foru agindu honen bidez onetsitako batez besteko prezioak egiaztabide gisa erabili ahal izango dira Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia kudeatzeko.

## 3. artikulua. Nola zehaztu automobilen, autokarabanen, quaden eta motozikleten balioa.

Matrikulatuta dauden automobilen, autokarabanen, quaden eta motozikleten balioa zehazteko, foru agindu honetako I. eranskineko batez besteko prezioei ibilgailuaren erabilera- urteei eta, behar denean, jarduerari dagokien ehunekoak aplikatuko zaie (ehunekoak foru agindu honetako IV. eranskineko taulan eta jarraibideetan ageri dira).

## 4. artikulua. Nola zehaztu laketontzien, itsas motorren eta uretako motoen balioa.

1. Laketontzien eta itsas motorren balioa finkatzeko, alde batetik ontzia baloratu behar da, motorrik gabe, eta beste alde batetik motorra. Hain zuzen ere, lehenengo, foru agindu honetako II. eranskinean ezarritako balioak hartu behar dira; gero, balio horiei III. eranskineko taulako ehuneko egokiak, erabilera-urteen arabera, aplikatu behar zaizkie, eta, azkenik, balio eguneratuak batu behar zaizkie, ontziaren balio osoa zehazteko.
2. Uretako motoen kasuan, balioa aleko eta modu bateratuan ezarriko da, kroskoaren eta motorizazioaren balioztatzea bereizi gabe; horretarako, foru-agindu honen II. eranskinean ezarritako balioak hartuko dira, eta III. eranskineko taulako ehunekoak aplikatuko zaizkie, erabilera-urteen eta III. eranskin horretan jasotako jarraibideen arabera.

## 5. artikulua. Balioa zehazteko arau berezia, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren ondorioetarako.

Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziari dagokionez honako arau hauek aplikatuko dira:

- Lehena: Foru agindu honetako I, II eta III eranskinetan jasotzen diren batez besteko prezioei foru agindu honetako IV. eranskinean jasotzen diren taula eta jarraibideetan ezarritako ehunekoak aplikatuko zaizkie, ibilgailua erabili den urte kopurua eta, hala badagokio, haren jarduera kontuan hartuta.
- Bigarrena: Erabilitako garraiobideak badira eta aurretik atzerrian matrikulatuta egon eta lehenengo eta behin betiko matrikulazioa egiten bazaie Espainian, goiko lehenengo arauan azaldutakoa aintzat hartuta kalkulatu den merkatu-balioari kendu egin behar zaio zeharkako zergen kuoten hondar-zenbatekoa, baldin eta zenbateko hori balioan sartuta badago. Horretarako, hain zuzen, formula hau erabiliko da:

$$ZO = \frac{MB}{1 + (\text{BEZ} \text{ tasa} + \text{ZGZB} \text{ tasa} + \text{BESTELAKO} \text{ tasak})}$$

Formula horretan:

**ZO:** Erabilitako garraiobideen gaineko zerga-oinarria, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezian.

**MB:** merkatu-balioa, IV. eranskineko ehunekoak aplikatu ostean batez besteko prezioen taulen arabera zehaztu dena.

**BEZtasa:** garraiobide horren lehenengo matrikulazioa Espainian eta orain matrikulatuko den lurralde-esparruan egin izan balitz garraiobide horri zerga hori dela-eta legokiokeen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zerga-tasa (bateko hainbestetan).

**zgzbtasa:** garraibide horren lehenengo matrikulazioa Espainian eta orain matrikulatuko den lurralde-esparruan egin izan balitz garraibide horri zerga hori dela-eta legokiokeen Zenbait Garraibideren gaineko Zerga Bereziaren zerga-tasa (bateko hainbestetan).

**BESTELAKOtasak:** garraibidea erostea zergapetu duten eta merkatu-balioan sartuta dauden zeharkako beste edozein zergaren tasen batura (bateko hainbestetan).

## **XEDAPEN GEHIGARRIA**

**Xedapen Gehigarri Bakarra. Foru agindu honetan sartuta ez dauden ibilgai.**

1. Ibilgailu horiei dagozkien batez besteko salmenta-prezioak ezartzen dituen Foru Agindu berri bat onartzen ez den bitartean, indarrean egongo da Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren uztailaren 11ko 287/2023 Foru Agindua, zeinen bidez onartzen baitira Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, eta Zenbait Garraibideren gaineko Zerga Berezia kudeatzeko aplikatzeko batez besteko, eta abenduaren 23ko 954/2022 Foru Aginduan ez dauden, salmenta-prezioak.
2. Uztailaren 11ko 287/2023 Foru Aginduan abenduaren 23ko 954/2022 Foru Aginduari buruz egindako aipamenak, Foru Agindu honi buruz egindakotzat ere joko dira.

## **AZKEN XEDAPENA**

**Azken Xedapen Bakarra. Indarrean jartzea.**

Foru Agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

### **I.ERANSKINA**

#### **LEHENENGO Matrikulazioaren Ondorengo Lehen Urtean Erabilitako Turismo-ibilgailuen eta lur orotako ibilgailuen batez besteko prezioak**

[2024ko ekitaldia](#)

### **II.ERANSKINA**

#### **LEHENENGO Matrikulazioaren Ondorengo Lehen Urtean Erabilitako Itsasontzi motordunen batez besteko prezioak ontzien prezioan ez da sartu ez motorearen balioa, ez propulzio ekioparena**

[2024ko ekitaldia](#)

### **III. ERANSKINA**

#### **ITSAS MOTOREAK**

#### **ITSASORAKO MOTOREAREN OINARRIZKO BALORAZIOA, IZAN DEZAKEEN TRANSMISIO MOTAREN ARABERA (KARELEZ KANPOKOA, KARELEZ BARRUKOA , KARELEZ KANPOKOA ETA BARRUKOA ). MEKANIKA ERREALEKO POTENTZIA UNITATE BAKOITZEKO (CV EDO KW), ERREGAIAREN ARABERA SEGÚN COMBUSTIBLE**

	<b>Gasolina (Euro/benetako K.W.)</b>	<b>Diesela (Euro/benetako K.W.)</b>
37 K.W. arte	99,12	169,92

Gehitzen zaion K.W. bakoitzeko	63,73	99,12
--------------------------------	-------	-------

	Gasolina (Euro/benetako ZP)	Diesela (Euro/benetako ZP)
50 Z.P. arte	73,34	125,72
Gehitzen zaion ZP bakoitzeko	47,15	73,34

Itsasontzietan, bereizita baloratuko dira motorrik gabeko itsasontzia eta motorizazioa, uretako motoen kasuan izan ezik; kasu horietan batera aztertuko dira, "Motorduna eta MN" zutabearen islatutako portzentajeen arabera.

Zerrendan jasotako balioa motorrik gabeko ontziari dagokio, eta antzinatasunaren arabeko balorazio-portzentajeak aintzat hartuta eguneratzeko oinarri gisa erabiliko da, belaontziak edo motordunak diren kontuan hartuta.

Motorizazioaren oinarrizko balioa (osagarria belaontzien kasuan, eta funtsezkoa ontzi motordunen kasuan) itsas motorraren oinarrizko balorazioaren arabera lortuko da, eta ekipo propulsaizailearen antzinatasunaren arabeko balorazio-portzentajeak kontuan hartuta eguneratuko da.

Eguneratutako guztizko balioa lortzeko, motor gabeko ontzien eta itsas motorren eguneratutako eta aurretik lortutako balioak batu behar dira.

ERABILPEN URTEEN ARABERAKO BALORAZIO PORTZENTAJEAK, OGASUN ETA FINANTZA SAILAK EZARRITAKO ONTZIEN ETA ITSAS MOTORREN BATEZ BESTEKO PREZIOEI APLIKATU BEHARREKOAK

Erabilitako urteak	Itsasontziak (motorerik gabekoak)		Itsas motorrak transmisioarekin
	Belaontziak	Motordunak eta MN	
Urtebete bitartean	100	100	100
1 baino gehiago, 2 bitartean	95	85	85
2 baino gehiago, 3 bitartean	89	72	72
3 baino gehiago, 4 bitartean	78	61	61
4 baino gehiago, 5 bitartean	70	52	52
5 baino gehiago, 6 bitartean	60	44	44
6 baino gehiago, 7 bitartean	55	37	37
7 baino gehiago, 8 bitartean	40	32	32
8 baino gehiago, 9 bitartean	38	27	27
9 baino gehiago, 10 bitartean	35	23	23
10 baino gehiago, 11 bitartean	30	19	19
11 baino gehiago, 12 bitartean	25	16	16
12 baino gehiago, 13 bitartean	20	14	14
13 baino gehiago, 14 bitartean	15	12	12
14 baino gehiago	10	10	10

**IV. ERANSKINA**  
**BALIO-GALERAREN PORTZENTAJEAK**  
**ERABILERA-URTEEN ARABERA ZEHAZTUTAKO PORTZENTAJEAK,**  
**OGASUN ETA FINANTZA SAILAK MATRIKULATUTA DAUDEN**  
**AUTOMOBILETARAKO, UR OROTAKO IBILGAILUETARAKO,**  
**QUADETARAKO ETA MOTOZIKLETETARAKO FINKATUTAKO PREZIOEI**  
**APLIKATU BEHARREKOAK**

<b>Erabilitako urteak</b>	<b>Portzentajeak</b>
Urtebete bitartean	100
1 baino gehiago, 2 bitartean	84
2 baino gehiago, 3 bitartean	67
3 baino gehiago, 4 bitartean	56
4 baino gehiago, 5 bitartean	47
5 baino gehiago, 6 bitartean	39
6 baino gehiago, 7 bitartean	34
7 baino gehiago, 8 bitartean	28
8 baino gehiago, 9 bitartean	24
9 baino gehiago, 10 bitartean	19
10 baino gehiago, 11 bitartean	17
11 baino gehiago, 12 bitartean	13
12 baino gehiago	10

ERABILERA-URTEEN ARABERA ZEHAZTUTAKO PORTZENTAJEAK, OGASUN ETA FINANTZA SAILAK AUTOKARABANETARAKO, CAMPER FURGONETETARAKO ETA ETXEBIZITZA-IBILGAILUETARAKO FINKATUTAKO PREZIOEI APLIKATU BEHARREKOAK

<b>Erabilitako urteak</b>	<b>Portzentajeak</b>
Urtebete bitartean	100
1 baino gehiago, 2 bitartean	87
2 baino gehiago, 3 bitartean	77
3 baino gehiago, 4 bitartean	71
4 baino gehiago, 5 bitartean	65
5 baino gehiago, 6 bitartean	59
6 baino gehiago, 7 bitartean	53
7 baino gehiago, 8 bitartean	48
8 baino gehiago, 9 bitartean	43
9 baino gehiago, 10 bitartean	38
10 baino gehiago, 11 bitartean	33
11 baino gehiago, 12 bitartean	29
12 baino gehiago, 13 bitartean	25
13 baino gehiago, 14 bitartean	22
14 baino gehiago, 15 bitartean	19

15 baino gehiago, 16 bitartean	16
16 baino gehiago, 17 bitartean	14
17 baino gehiago, 18 bitartean	12
18 baino gehiago	10

Aurreko ehunekoak aplikatzean lortzen den zenbatekoa % 70 murriztuko da, eskualdatutako ibilgailua lehenengoz matrikulatu zenetik sei hilabete baino gehiago beren beregi haueko jardueraren baterako erabili den kasuetan: kontraprestazio bidez gidariei erakusteko, gidaririk gabe errentan jartzeko, edo taxi, autotaxi edo autoturismo gisa, indarreko legerian hala dela zehaztuta egon beharko duena.